



## **ALKATETZAREN TXOSTENA. 2014KO AURREKONTUA.**

Memoria edo txosten honen edukiarekin, 2014rako Udal Aurrekontuen dokumentua aurkezten dugu, aurrekontuaren azken zenbatekoan 32.718.688,18€ euroko aurreikuspena duena; diru-sarrerak eta gastuak orekatuta.

Azken bost urte hauetan, 2009az geroztik, Memoria honen sarrerakoan, ekonomia-krisi orokorreko egoera behin eta berriz aipatu izan dugu, sektore guztiei eragiten diena eta, herri mailan, erakundeen diru-bilketa gaitasunaren murrizketa handia dakarrena; beraz: murrizketa eta ahuldadea erakundeen gastu-ahalmenean; guzti horri, Ongizatearen Estatuaren gainbehera gehitzen badiogu, testuinguru sozioekonomiko zaila dugu, familien mikroekonomiari oraindik modu bortitzagoan eragiten diena.

Hortaz, 2014 honetan ere testuinguru zail batean segitzen dugu, krisialdi osokoa, baina hala ere, horretan eskumena duten erakundeek ekonomiaren portaerari buruz egin duten aurreikuspenek hobekuntza txikiren bat lausoki ikusten uzten dute, Aurrekontuaren dokumentu honetan islatu ahal izan duguna.

Hala da, konparazio baterako eta orokorrean hartuta, 2014ko aurrekontuen proiektuak 2013koak baino %13 gehiago du, beraz, 2011. urtean geunden maila hartatik zertxobait gorago gaude, baina oraindik 2009koetatik baino beherago, orduan 39 milioi eurokoa izan baitzen aurrekontua.

Hala ere, aurrekontu hauek hobeto ulertzeko, PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien artean Eusko Jaurlaritzaren egonkortasunerako izenpetutako akordioaren eta 2014ko Jaurlaritzaren aurrekontuen negoziazio-prozesuaren ondoren, PSE-EEren hainbat zuzenketa barneratu dira gure hirian irisgarritasun plan batzuk gauzatzeko, guztira, 3.100.000 euro. Gure dokumentuan islatuta dago hori, gastuaren kapituluan nahiz diru-sarrerakoan.

Egoera hori alboratuta –gure hiriarentzat onuragarria benetan baina salbuespenezkoa aurrekontu-ikuspegitik- aurrekontuetarako gure proposamenak ez luke ahalmenik izango hiru milioi euro horiek bere gain hartzeko, beraz, 2013koarekin konparatuz gero % 2,5aren inguruko igoera bat izango genuke.



Hazkundearen bidean sartzea da, baina ingurune sozioekonomikoaren portaeraren errealitatera egokituagoak diren portzentaje batzuetan, eragile ekonomiko guztiek egindako balorazioetan oinarrituta.

Eta egoera honetan proposamen erreal bat aurkezteko gauza izan behar dugu: proposamen zorrotza eta aldi berean anbizioz betea; doituia baina arrazoizko optimismoz jantzia; eraginkorra eta eragingarria; gure hiriko zerbitzuen kalitatea mantentzen utziko duten ekintzak proposatu ahal izatekoa eta Eibarri hazten segitzen utziko dioten etorkizunako erronka guztiei erantzutetako.

Finantzaren ikuspegitik ondo egindako lanari esker esan dezakegu erakunde sendoa dela udala, gobernu taldeak gestio ekonomikoan erakutsi duen erantzukizunean oinarritua eta dugun pertsonal teknikoak eraginkorki aholkatua, izan ere, beraien lan-baldintzetan udalaz gaindiko erabakien ondorioak jasan beharra izan badute ere, zerbitzu publikoarekin duen konpromisoari tinko eusten jakin izan baitute.

Aurreko jardunaldietan bezala, dokumentu honen oinarriak finkatzeko landu diren irizpideak askotarikoak izan dira, kapituluka edo atalka egingo den azalpenean argi eta garbi ikusi ahal izango direnak.

- Errealitate sozioekonomikoak -urte honetan ere, beste behin, ekintzen jerarkizazioa markatzen du- eta, susperraldi-keinu txiki batzuk ikusi arren, eskuragarritasun ekonomikoak lehentasunak ezartzera behartuko gaitu.

- Hiritarrei eskaintzen zaizkien udal zerbitzuen kalitateak ezin du jaitsierarik izan testuinguru ekonomikoagatik. Benetan eta irmoki uste duguna da, azken urte hauetako zailtasun ekonomikoak gorabehera, udal zerbitzuen eskaintzak kalitate benetan handia duela. Eta udal honen lehentasunezko helburu izaten segitzen du kalitate hori mantetzea eta, are gehiago, kalitatea hobetzea.

- Herritarren parte-hartzea, alde batetik, herriko kolektibo, elkarte eta taldeekin ditugun hartu eman estuak mantenduta, denok ahaleginduta, beraien jarduerak egitea berma dezagun. Eta bestetik, etengabe zabalik dauden komunikazio-kanalen bitartez; proiektu jakin batzuetarako izandako bileretan edo auzoz auzo urtero egiten diren



bileretako partehartze-prozesu horien ondorioz hainbat proiektu eta ekintza hezuramaitzen dira, eta ahal den neurrian, asmo horiek udal sailtako lanetan txertatzen dira, eta, hala dagokienetan, udal aurrekontuetan.

-Gobernu Programa -hala behar du izan eta hala da- irizpide garrantzitsu bat da aurrekontuak egiterakoan, hiritarrek beren konfidantza ematerakoan konpromisu batzuen arabera eman zigutelako, eta krisialdiagatik proiekturen baten plangintza aldatzera behartuta aurkitzen bagara ere, gure asmoa, pixkanaka hori betetzen joatean inspiratu beharko litzateke.

-Azkenik esan behar da egokiera-irizpideek ere aberastu egiten dutela dokumentu honen edukia. Horrekin esan gura duguna da 2014. jardunaldirako 3,1 milioi euro eskuratu direla gure hiriarendako, Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuan islatutakoak, Jaurlaritzari egonkortasuna eskaintzeko testuinguru horren barruan PSE-EEk zuzenketak aurkeztu eta PNV-EAJek onartu izanaren ondoriozkoak, eta Eusko Legebiltzarrak Aurrekontuak onartu zituenean Euskal Gobernuaren kontuetan txertatutakoak.

-Aldi berean hauxe gaineratu behar da: erkidego mailan lortutako akordio horien ondorioz, udal aurrekontu hauei eragiten ez badie arren, Amaña auzoan trenbidea estali eta bikoizteko obra bultzatzeko Eusko Jaurlaritzak hartu duen konpromisoa azpimarratu egin behar da, baita gure hirian Azpiakutuen Ospitalea bat jartzeko egin beharreko obrak 2014. urtean zehar hasteko konpromisoa ere.

## DIRU-SARREREN EGOERA

### A. ERAGIKETA ARRUNTAK.

#### 1. Kapituluua. Zerga zuzenak.

2013arekin konparaziozko azterketa egiten badugu, kontzeptu honetan, diru-bilketa aurreikuspenaren igoera % 6tik hurbil dago, batik bat, 2012ko KPIa (% 2,9) 2014rako onartutako tasetan, prezio publikoetan eta zergetan igotzearen emaitza, OHZn diru-bilketa portaera hobetoago bat aurreikusten baita, JEZren diru-bilketarekin igoerarekin batera.



## 2. Kapituluua. Zeharkako zergak.

Azken urte hauetako Memoretan gogora ekarri izan dugun moduan, krisialdiak gehien astindu duen kapituluetakoa bat dugu honako hau, eta 2014. urte honetarako - 2013koarekin konparatuta- % 30etik inguruko beherakada bat izango du, 130.000 eurotik 100.000 eurora jaitsita.

Kapitulu honetan gelditu eta denbora emango dugu une batez Eusko Jaurlaritzak gure hirian jasoko duen Azpiakutuen ospitalea aipatzeko; eta hain zuzen ere, kapitulu honetan obrak egiten hasteak ekarriko duen ondorio kuantitatiboa aipatzeko. Noski, eraikuntza zergaren ordainketa dut hizpide.

Hauxe ekarri behar da gogora: 2013ko aurrekontuan bazegoela kontu-sail bat kontzeptu horregatik, Eusko Jaurlaritzak tramitatu zuen lizentzia-eskabide formalaren ondorio.

Aurrekontu-proiektu hau egiterakoan ezin zen inongo kontu-sailik islatu kontzeptu horregatik 2013an zegoelako. Eusko Jaurlaritza berriak egindako hausnarketaren ondorioz, proiektua *impass* egoera batean sartu zen; beraz, tramite guztiak gerarazi ziren, lizentzia ere bai. 2013ko amaiera aldean, lizentziaren iraungidura erabaki zen.

PSE-EE eta EAJ-PNV taldeen artean izenpetutako akordioaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren Egonkontasunerako Akordioa, eta aurrekontuaren arloan lortutako adostasunaren frutu, Eibarko Azpiakutuen Ospitalearen izaera estrategikoak berriro ere indarraldia hartu zuen, eta Eusko Jaurlaritzak berak 2.000.000 euro islatu ditu 2014an obrak egiten hasteko.

Alkatetzatik ez dugu inongo zalantzarik: obra hori aurrean bertan hasiko da egiten, beraz, obrari dagokion lizentzia ere tramitatu egingo da. Baina aurrekontu-zuhertasunak Eibarren jasoko den Azpiakutuen Ospitalea egiteko obra-lizentziaren eskaera egin arte itxoitea eskatzen digu, kuantifikazioa, 2014ko ekitaldiari dagokion diru-sarreraren kapituluaren isla dadin.



Bestalde, beti komeni da gogora ekartzea, gure hiriak –beste udalerrri gehienek ez bezala- oin berriko eraikuntzak dituela zergapean, etxebizitzarakoak ez diren lokaletan edo eraikinetan egindako obrak, izan ere, udal honek ez baitu kobratzen zerga hori etxe barruko guztienetan egiten diren zaharberritzeetan (fatxadak, teilatuak, igogailuak...) edo banakoenetan.

Salbuespen horri, helburutzat fatxadak berriztatzea duten obretarako laguntzak emanda etxejabe elkarteei laguntzeko hartutako neurriak gehitzen badizkiogu, eta horri denari igogailu zaharrak kendu eta berriak ipintzeko edo, igogailua jartzeko eta peoretako irisgarritasuna hobetzeko, emandako diru-laguntzak gaineratzen badiogu, hauxe da ikusten duguna: azken urte hauetan, ehundaka izan direla udal politika horren onura jaso izan duten herriko familiak.

Eta pairatzen ari garen krisialde honek eskaera-kopurua murriztu badu ere eta Udalak gasturako duen ahalmena doitu badu ere, gure asmo irmoa da jarduera-ildo horri eustea eta familiei laguntzen segitzea beraien bizi-kalitatea mantentzen, beraien etxebizitzak eta haren lotuta dauden etxebarruako guztienak diren elementuak mantentzen eta hobetzen lagunduta.

### 3. Kapituluak. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk.

Tasetan, zergetan eta prezio publikoetan igoera onartu arren, kapitulu honek % 2,5aren beherakada arin bat pairatu du.

Doiketa hori, atal jakin batzuen portaera aztertzetik atera den diru-sarrera gutxiagoren aurreikuspenetik dator, esate batrako: garabi-zerbitzua -kontratu berri baten ondorio-, Euskaltegiaren matrikulazioa -kolektibo batzuei eskaintzen zaien hobariaren ondorio-, ikuskizunetarako sarrerak, takillako kontratuak edo telekomunikazioetako operadoreak.

### 4. kapituluak. Transferentzia arruntak.

Kuantitatiboki, diru-sarreraren kapitulurik garrantzizkoenaren aurrean gaude.

2013. urtekoarekin konparatzen badugu, kapitulu honek izango duen gorakada % 5 ingurukoa izango da. Kapitulu honetan beti izan du zeresan handia Udala



Finantzaketarako Foru Funtsak, diru-sarreretako aurrekontu orokorraren ia % 50a delako, eta kapitulu honen % 90a.

Horregatik, kontzeptu horrek esanahi berezia du aurrekontua egiterakoan, baina gehienbatez ere, lurralde osoaren bilakabide ekonomikoaren aurreikuspena haztatzeko aukera ematen du.

Udalaren diru-sarreraren aurrekontuan kontzeptu honegatik zenbateko jakin bat jartzeko orduan, Udal Kontu-hartzailetzatik hausnarketa bat egin da kontzeptu honek izan duen bilakabide historikoaren inguruan, eta hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiak urtearen hasieran egiten dituen aurreikuspenen eta urte bakoitzaren likidazioaren artean.

Hausnarketa horrek zuhurtziazko estrategia bat planteatzera garamatza diru-sarrerak baloratzeko orduan, azken 6 urte hauetan Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren inguruan egin diren aurreikuspenak optimistegiak izan direlako, eta Eibarko udalerriari dagokionez, likidazio negatiboak kasik 9.000.000 eurora iritsi dira.

Foru diru-bilketan eragina izan dezaketen azken albisteek diotena kontuan hartuta (Fagor efektua, kupoa zehaztea...), udal kontu-hartzaileak, Eibarrek Udal Finantzaketarako Foru Funtsean 2014. urtean izango duen parte-hartzearen aurreikuspen legez, ondokoa planteatu du: 2013ko Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren likidazio-aurreikuspenari % 3a gehitzea, baina, hala ere, lurraldeko ekonomiak benetan izango duen bilakabideari adi egonda. Eta horrela egin dugu.

Bestalde, gora egin dute nabarmen Enpleguko Tokiko Planekin loturako kontu-sailek edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzek; Eusko Jaurlaritzak, behar edo premia gehien duen familiei ematen zaien laguntza horrek sortzen dituen premia ekonomikoak bere gain hartuko dituelakoan.

5. kapitulua. Ondarezko diru-sarrerak.

Diru-sarreraren egoeran duen eragina % 0,5ekoa baino ez da, beraz, joan zen urtekoarekin konparatuz gero, haren antzekoa dela esan dezakegu.



## 6. Kapitulua: Inbertsio Errealak besterentzea.

Aurreko urtean bezala, aurtengoan ere ez da horrelako hirigintza-garapenik aurreikusten, beraz, kapitulu honetan ez da islatu inongo diru-sarrerarik, noski, urtea nola doan ikusi arte.

## B. KAPITAL ERAGIKETAK.

### 7. Kapitulua. Kapital transferentziak.

Kapitulu honen gorabehera, hiriko udal inbertsioak garatzen beste erakunde batzuek ematen duten diru-laguntzaren araberakoa da.

Hasieran aipatu dugun moduan -PSE-EE eta PNV-EAJ alderdien artean lortutako emaitza- ekitaldi honetan hirian egingo den inbertsio-esfortzuak garrantzia handia izango du.

Alde batetik, eta aurrekontuan garrantzirik ez eduki arren, 2014. urtea giltzarri izango da Amaña aldetik doan trenbidearen obrak amaitzeko; baita gure hirian Azpiakutuen Ospitalea jartzeko ere, eta horren oinarriak aurreko autonomia lege-agintaldian ipini ziren.

Bestalde, PSE-EEK zuzenketa asko aurkeztu dizkie 2014ko Autonomia Erkidegoko aurrekontuei, eta zuzenketa Legebiltzarrean onetsi ondoren, hiriaren inbertsio-proiektuetarako 3,1 milioi euroko injekzioa bermatu dute.

Diru-ekarpen horrekin hiriko irisgarritasuna hobetzen jarraitu nahi dugu; proiektu gehienak herritarrek egindako eskakizunetatik abiatu dira, gehienak, udalak artikulatu dituen parte-hartze prozesuen bidez jasotako eskakizunak.

Igogailuez ari gara: Amaña, Urki, Legarre eta Bista Eder-Eulogio Garate kaleetako igogailuez; baita lehendik dauden eskailera mekaniko batzuen egokitzapenez eta modernizazioaz ere.

Aparteko diru-ekarpen horretaz kanpo, izaten dira baita beste plan eta urteko programa batzuk ere, eta horietara jotzea pentsatzen dugu.



8. kapitulua. Finantza-aktiboak.

5. Kapituluaren aipatu dugun moduan, honen eragina benetan txikia da, eta batik bat, langileei egindako soldata-aurrerapenen itzulerak eta fidantzak ditugu honen oinarrian.

9. kapitulua. Finantza-pasiboak.

Aurrekontua, gastuetan eta diru-sarreretan, orekatzen duen kapitulua dugu hau. Udal Kontu-hartzailatza sailaren profesionaltasun eta gaitasun maila handiari esker, eta udalak erakusten duen erantzukizunari, eta gastu publikoaren kontrolari eta arrazionalizazioari esker, dugun zorpetze-maila benetan inbidia emateko modukoa da.

Zorpetze-maila zeharo kontrolatuta eduki arren, zorpetze-mila hori gehitzeko prozesuak planteatzeko orduan lege-esparruak berak ezartzen duen goragoko araudira eta Kapitulu honek dituen mugapenetara jo beharra dago. Horregatik, aurkeztu den aurrekontuarekin, aurreikusten den 750.000 euroko kreditu-eragiketak ez du aitzakiarik.

#### GASTUEN EGOERA.

Lehen aipatu dugun moduan, oro har hartuta, %13aren igoera dakarren diru-sarreraren aurreikuspenak –proportzionalki igoera horren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzak irisgarritasunerako emango duen aparteko diru-ekarpen horretatik etorri arren-malgutasun-maila benetan txikia uzten du aurreko jardunaldiarekin konparatuz gero. Diru-sarrera hauek zertan erabili behar diren esateko orduan, udal talde bezain interpretazio eta proposamen aterako genituzke. Hala ere, gure ustea sendoa da eta uste dugu gure proposamenarekin ematen zaiola erantzunik zintzoena udal kudeaketa oinarritzen dugun zutabe hauei: errealitate sozioekonomikoari aurre egin; hiriaren elkarte-sareari lagundu; hiritarren parte-hartzea proiektu jakinetan gauzatu edo hezurramitu eta, pixkanaka, hauteskunde-programa bete. Eta hori dena arrazionaltasunaren, eraginkortasunaren eta eragingarritasunaren bidetik.

#### A. ERAGIKETA ARRUNTAK.





### 1go. Kapitulua. Pertsonal gastua.

Gastuen ataleko kontu-sailen multzo horretan garrantzia handikoa izaten segitzen du ; atal osoaren % 33a da. Aurreko ekitaldiarekin konparatzen badugu % 9aren igoera dugu. Horren azalpena, Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin garatu diren Enplegu Planen ondorioz sortu diren kontu-sailetan topatuko dugu, izan ere, aurreratu genuen bezala, batik bat, kontratuak egitekoak baitira; horregatik islatzen dira kapitulu honetan.

Oraingoan ere, beste behin, langileen soldatak izoztuta daude, Gobernu zentralak derrigorrez bete beharreko eman dituen arauak diotena betez.

Eta bestalde, justiziazkoa da, atal honetan, beraien lan-eskubideetan mozketak pairatu arren, udal langile guztiek egiten duten lan edo bihar profesional, bikain eta konprometitu hori aitortzea.

### 2. Kapitulua, Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzutan.

Oraingoa bezalako krisialdi honen barruan egoteak, urte askotakoa eta benetan sakona, azken urte hauetan gastu arruntari eutsi ahal izateko behetan erabaki garrantzitsuak hartu behar izan ditugu. Udal praktikan Kapitulu hau kontrolatzeak duen garrantziaz jabetu izanak, 2014rako 2013ko zenbatekoei eutsi ahal izaten utzi digu; eta areago: portzentaje aldetik, jaitsiera txiki bat dago.

### 3. kapitulua. Finantza gastuak.

Joan zen urteko ekitaldiaren parean gaude zenbatekoetan, udal kontu-hartzailtza sailean udal zorrari eusteko eta arrazionalizatzeko egin den lan garrantzitsuari esker.

### 4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

2. kapituluan bezala, kapitulu honetan ere Udalak beste erakunde batzuei (entitateak, taldeak, elkarteak...) beraien jarduera garatzeko ematen dizkien diru-ekarpenak islatzen digu.



Joan zen urtekoan baino % 6,7 gehiago izatea hemendik dator: IMESAk, entitate horretan dugun trantsizio-aldi honetan egin diren obra-erreklamazio batzuei aurre egiteko aparteko diru-ekarpenak egin behar izatetik; Gizarte Larrialdietako Laguntzen zenbatekoek gora egitetik -Eibarren gutxien duten familien beharra eta premia adierazten du horrek-; herrialde pobretuenei diru gehiago ematetik -% 1aren laguntza emateko dugun konpromiso hori betez- edo Musika Eskolari eta Kirol Patronatuari egin behar izan zaizkien transferentzietatik.

Aldi berean, Kapitulu honetan sartzen dira baita gazteak biltzeko lokalak araudira egokitzeko emango diren laguntzak jasoko dituen kontu-sail berri bat edo Enplegurako Tokiko Planetarako sartu direnak.

## B. ERAGIKETA ARRUNTAK.

### 6. kapitulua. Inbertsio errealak.

2014. urterako, hiriaren hobekuntzari 5.268.995 euroko zenbatekoa zuzentzea lortu dugu, inbertsio bidez.

Lehen begiradan kontu-sail hauek 2.500.000 eurotik gorako igoera izan duela ematen badu ere, -bikoiztu egin dela ematen badu ere- kapitulu hau zorrotz aztertuz gero, zenbaki horretan ñabardura batzuk egin beharra dago. Gauzak zehaztuta, Eusko Jaurlaritzaren diru-ekarpenak kenduko bagenitu aurten, eta joan zen urtean Foru Aldunditik lortu zena (700.000 euro), ondorio honetara iritsiko ginateke: gure baliabideekin gauza izan garela kapitulu hau % 6an goratzeko, ekonomiaren portaeran ikusten ari garen hazkunde moderatu horren ildotik.

Azken finean, gure baliabideen bitartez eta PSE-EEK proposatutako zuzenketen bidez –Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuetan, 2014koan sartutakoa- Eusko Jaurlaritzaren aldetik lortu den laguntzaren ondorioz, 5.000.000 euro baino zertxobait gehiago dugu, ahal den neurrian, hiritarren eskaerei eta kezkei erantzuteko, eta horrekin batera, gobernu-programa betetzen dugu. Zenbateko horrekin bakarrik ezingo gara iritsi oraindik egiteke dauden gauza guztietara, baina gure kudeaketa gidatzen duen konpromiso-betetze horren ildotik joaten utziko digu.



Kapitulu hau markatzen duen kontu-saila, bai kopuru aldetik, bai kualitatiboki, Eusko Jaurlaritzan PSE-EE eta EAJ-PNV taldeen arteko adostasunetik sortu dena da, Eibarren irisgarritasuna hobetzeko 3.100.000 euro edukitzen uzten diguna.

Zenbateko honen desglosea eginez, esan, horko zati bati esker, lehendik dauden irispide mekanikoak arau berrietara egokitzeko aukera izango dugu -EAJ-PNV taldeak egindako proposamenari erantzunez, baita zati batzuk estaltzeko aukera ere-; beste zati bat hiriko igogailuak jartzeko erabiliko da -hiritarrek eskatutakoak denak- eta horien egokitasun teknikoa, soziala eta ekonomikoa aztertu da eta Eusko Jaurlaritzarekin dagoen elkarlanerako testuinguru honetan hori dena bideratu da.

Urkiko bigarren igogailua; Amaña pasealekutik Tiburtzio Anitua kaleen artekoa; Bista ederretik Eulogio Garate kalearen artekoa eta Legarretik Legarregainera doana –dorre ondoan- ditugu hizpide.

Inbertsio ahalegin handi horrekin batera, aurten hasiko gara baita Txomoko Parkearen berrurbanizazio-obrak egiten. Bestalde, 600.000 euroko kontu-sail batek –obra txikiatarakoa- jarduera edo gauza txikiago batzuk egiten utziko digu, joan zen urtearen amaiera aldean auzoz auzo egindako bileretatik atera diren gauzak.

Joan zen urtean hasi ginen kaleak asfaltatzen, eta aurten, asfaltatze-lanok osatzeko kontu-sail handi batzuk dauzkagu; baita baserri-auzoak hobetzeko edo herriko argiteria, iturriak eta lorategiak txukuntzen edo konpontzen joateko; hiri-ekipamendua ere bai; lehen hezkuntzako eskoletan egingo diren lanak ahazteke.

Traba arkitektonikoak kentzen segituko dugu pasabide goratuak eginda. Kontu-sail hori handitu egin da EAJ-PNVk hala eskatuta.

Aurrekontu-proposamen honetan Errebaleko proiektuarendako kontu-sail berezirik ez ipini arren, urtean zehar burutuko diren gauzak nahiko nituzke azaldu; udal honek jarduera estrategiko hau bultzatzen jarraitzeko duen konpromisoa irmoa delako.

Leku horren erabilerak zehaztu dituen parte-hartze prozesua amaitu ondoren; orain, eraikuntza-proiektua amaitzeko prozesuari ekin diogu, geratzeke eta atzera egiteke, proiektua gauzatzeko egin behar diren obrak lizitatu ahal izateko.



Horretarako, berehala, arkitektura ideien lehiaketa bat kaleratuko dugu, erakundearen lana hiritarren iritziarekin elkartuta. Horretarako sariak jarriko ditugu eta zenbatekoak ere aurreikusita daude. Zenbateko horiek, Aurrekontuetako "Estudioak eta Proiektuak" 200.000 euroko kontu-sailean sartuko dira.

Ideiak aukeratu ondoren, egikaritze-proiektuaren erredakzioa jarriko da lizitazioan; horrek, proiektu honi buruzko finantza- eta ekonomia-ikuspegi argiagoa izaten utziko digu. Eta memento horretatik aurrera, aurrekontuan zenbateko zehatz eta jakin batzuk ipini beharko digu, dagoeneko hartua dugun konpromiso hori bermatu ahal izateko: Errebalen, proiektu adostu bat jasotzea, hiriaren leku edo alde hori bultzatzeko, erreferentzia bilakatzeko eta biziberritzeko balio izango duena.

#### 7. kapitulua. Kapital transferentziak.

Aurrenik, gure hiriko trenbidea estaltzeko proiektutik sortutako gure obligazioekin aurrera egin ahal izateko Eusko Jaurlaritzarekin izenpetutako hitzarmena betetzeko aurreneko kontu-sail bat aipatu behar dugu. Denborak aurrera egin ahala, ikusten duguna da obra horrekin asmatu egin dugula, gure gizarteak oso ondo hartu duelako, eta 2015eko lehenengo hiru hilabetetik aurrera leku berri bat eskainiko digulako, Amañakoa amaitzen denean.

Kapitulu honetan, dagoeneko historikoa bilakatzen ari den konpromisoa islatzen da: alde batetik fatxadak berriztatzeko auzo elkarteei emango zaizkien laguntzak, eta bestetik igogailuak ipintzeko edo zaharrak kendu eta berriak ipintzekoak eta irisgarritasuna hobetzekoak.

#### 8. kapitulua. Finantza-aktiboak.

Aurrekontu honen esparruan 73.200 euroko zenbateko bat izatea eragin gutxikotzat har genezake.

#### 9. kapitulua. Finantza-pasiboak.



Udalaren zorrari zuzendutako zenbatekoa da, erakundearen kudeaketa ekonomikoan kontzeptu honen egonkortasuna islatzen duena.

-----

Memoria edo txosten honekin 2014. urterako aurkeztu den Aurrekontu Proiektuaren helburuak eta oinarriak azaltzen ahalegindu gara, kapitulu guztiak eta partida edo kontu-sail esanguratsuenak aztertuta; aurrekontu hau zein testuingurutan ematen den adierazita.

Egonkortasun paktuak eta haren garapenak, PP taldearekin adostutakoa, kontu hauen onespena bermatzen du. Hala ere, udal honetako beste talde handi bi horiekin negoziazio-aldia oraindik zabalik eduki arren, zuzenketak aurkeztu baino lehen izandako elkarrizketen ondorioz, optimismorako bidea ikusten dugu beste alderdi batzuekin akordioetara hel gaitzkeelakoan gaudelako.

Hala da: bizi dugun egoera aztertuta, aurkeztu dugun dokumentu hau ikusita, proposatu diren jarduerak edo egitekoak zeintzuk diren kontuan hartuta eta elkarrizketaren joera eraikitzailea ikusita, EAJ-PNV taldearen aldeko jarrera iragarriko delakoan gaude, eta horrek, udal aurrekontuei, oraindik legitimotasun handiagoa emango die, litekeena bada.

Bildurekin izandako elkarrizketetatik atera dugun ondorioa hauxe izan da: alde bien arteko distantziak zaildu egiten dutela akordioa, baina epeak amaitu arte, berbetan segitu beharko dugu.

Dugun itxaropena da Gipuzkoako ekonomian eragin izan dezaketen berreskurapenaren aldeko aurreneko zantzu apur horiek finkatzea, jarduera ekonomikoak duen gorako joera hori indartzea, eta, hortaz, gure herriko familiek gaur egun pairatzen ari diren zailtasunak gainditzeko joan izatea; administraziook ere baliabide gehiago eduki ahal izateko, gauden leku honetatik eta ditugun eskumenetan oinarrituta, hiritarren eskaera guztiei erantzun ahal izateko.

Bien bitartean, aurrekoetan esan izan dugun bezala, dauzkagun baliabide hauekin, lanean jarraituko dugu gure hiriaren eta gure hiritarren bizimodua eta bizitza



hobetzeko, errespetuz edo begirunez, erantzukizunez eta dugun konpromisoa betez, baina baita konfiantzaz eta anbizioz ere.

Eibarren 2014ko urtarrilaren 28an

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL.

ALKATEAK